

Korrikaren hitzordua

Ostiral goizean Urnieta eta Andoainen barrena igaroko da Korrika / 8-9

Harria altxatzea, Santa Krutz jaietako desafioa

Santa Krutz jaiak bere horretan ospatzeko gogo biziz daude andoaindar asko. Antolatzaileak egitaraua antolatzen ari dira eta desafioa iragarri dute / 10



**Korrikaren
azken kilometroak
eta amaierako
ospakizuna,
igandean Donostian / 8**



**Korrika Txikia,
Korrika igaro ostean.
Urnietan 10:00etan,
eta Andoainen
10:30etik aurrera / 9**



**Iturza janari-dendak
ateak itxiko ditu
hilaren 30ean.
Roxarito Iturralde da
jabea / 16**

bertako
igogailuak | ascensores

22. korrika
HITZKIN
Amurrio & Donostia
2022ko martxoaren 11tik 13ra

**EUSKARA,
GURE HELBURU KOMUNA**

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917

DEITU EDO BISITATU
www.bertako.eus





AIURRI

Biribilgunea forma hartzen ari da

Rikardo Arregi nahiz Agustin Leitza kaleetako eta Nafarroa plazako trafikoa bideratzeko biribilgune berriaren eraikuntza aurrera doa, eta, pixkanaka, forma hartzen ari da ingurua. Eraikitze lanak direla medio, anbulatoria, ikastolara edo kale batetik bestera joateko eragina nabarmena da oinezkoengan eta gidariengan.



UDALA

Garbiketa- eta txukunketa-lanak

Andoaingo Udala eta Eusko Jaurlaritzaren URA agentzia Leitzarar eta Oria ibai ertzetan txukuntze- eta mantentze-lanetan ari dira. Aurreko astean Santa Krutz zubiaren inguruan garbiketa-lanetan aritu ziren. Aste honetan, Oria ibaialdean aritu dira. Udalak, oharrarekin batera, ibaitik ateratako elementu solidoen argazkiak zabaldu ditu.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



PSE-EE bere bakardadean, Saharako mozioan

Espainiako Gobernuak Marokoren aldeko jarrera iragarri ostean, kritika zabalak jaso ditu

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Saharako auzian, alderdi sozialista bere bakardadean murgildu da. Pedro Sanchezen estrategia aldaketak alderdi askoren kritika eragin du, eta auzia Andoainera iritsi da. EAJ-PNVk, PSE-EEren gobernu kide izanik ere, Saharako herriaren eta Hurria-Sahara elkartearen aldeko mozioa aurkeztu zuen azken plenoan. Bat egin zuten EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos alderdiek, eta sozialistak txokoa utzi zituzten. Ez da egoera atsegina izango Andoaingo sozialistentzat, agerikoa baita Sahararen alde urte luzez agertu duten jokabidea. Baina politikan gogoko ez diren hainbat erabaki hartu behar izaten dira, eta, azken plenoan, Andoaingo PSE-EEren ordezkariak alderdiaren erabakiari men egin behar ziotela adieraztera behartu zituzten. "Alderdiko diziplina medio", txokoa geratu ziren.

Imanol Goenaga jeltzaleari koherentzia ariketa iruditu zitzaion otsailean Saharako herriaren alde aho batez onartu zen adierazpena. Hots, koherentzia falta leporatzen zion alderdi sozialistari.

EH Bilduko Andoni Alvarezek Pedro Sanchezen jokaldiaren ondorioak nabarmendu zituen: "Marokori arnasa eman zion eta saharar herria are gehiago estutu zuen. Gure ustez, Saharak eta estatutik gabeko nazio guztiek autodeterminaziorako eskubidea dugu".

Elkarrekin Podemoseko Tere Santanak orain arteko adostasuna gogoan hartu zuen: "Duela ez asko, adierazpen instituzionala sinatu genuen alderdi guztiok. Pedro Sanchez presidentearen erabakia entzun nuenean, askok ez genuen ulertu eta, egun, ulertu gabe jarraitzen dugu".



Hilario Dorronsoro, Mari Jose Izagirre, Manu Segovia eta Ainhoa Zuazu. AIURRI

Leitzarar Bisitarien Etxeak ateak zabalduko ditu

Aste Santuan egunero zabalik izango da. Ekimen berrien aldeko apustuari eutsiko dio Udalak

Erredakzioa ANDOAIN

Leitzarango bailarak eskaintzen duen inguruaz eta interpretazio guneak ezagutarazten duenaz harago, Udalak jarduera berrietan egin du apustua: "Aipatze-koak dira *slow adventure* jarduerak eta mugikortasun jasangarria eta ingurumenaren kontserbazioa sustatzea helburu duten jarduerak, hala nola, oinez edo bizikletaz egingo diren bisitak edo joan den denboraldian ireki zen Ferrata Bidea. Aurtengo nobedadea *Mugikortasuneko Triatloia* izango da, DBHko ikasleei zuzendutako

kontzientziazio-jarduera". Apirilaren 9an, gunearen ateak irekitzeko gogoz zegoela adierazi zuen Ainhoa Zuazu zentroko arduradunak. "Gure ingurunea ezagutzeko eta gure inguruko naturaz gozatzeko interesa duten bisitariei harrera egiten hasteko, baita andoaindarrei ere, balio natural handiko ingurunean aisialdiko jarduera jasangarriak eskainiz". Denboraldi berriaren aurkezpena egin zuen Mari Jose Izagirre zinegotziak, Hilario Dorronsoro eta Manu Segovia Udal teknikariekin batera.



AIURRI

Abesbatza, Asteasu aldean

Asteasuko Usarrabi abesbatzak eta Andoaingo Udal Musikako abesbatzak kontzertua egin zuten aurreko ostiralean, Asteasuko San Pedro elizan. Bukaera aldera, elkarrekin kantari aritu ziren, eta Sorozabalen "Biotz bat" eta Mokoroaren "Illun-abarra" abestiak abestu zituzten. Emanaldiko hainbat bideo ikusgai daude Aiurri.eus webgunean.



Martxoko galdetegi irudia. UDALA

Proposamenak aztertzeari ekin diete Udal teknikariek

Urnietako Udalak azken parte hartze prozesuaren emaitzen berri eman du

Erredakzioa URNIETA

Urnietarrek haien auzo eta kaletan hobetzeko, konpontzeko edo egiteko ikusten zituzten gauzak aintzat hartuta, proposamenak aurkezteko aukera izan zuten martxoaren 9tik 27ra arte. Epe horretan, 231 galdetegi jaso ziren. Horietatik 78 martxoren 18an eta 19an jarri zen informazio karpan, 75 herriko puntu desberdinetan ipinitako buzoi eta kutxetan, 32 udalaren webgunean eta 46 APP-an.

Orotara, 10 eskaera baliogabetu dira, ez baitzituzten gutxieneko irizpideak betetzen. Orain, jasotako proposamen guztiak

aztertuko dituzte hirigintzako teknikariek, prozesuaren hasieran zehazturiko gainerako baldintza teknikoak betetzen dituzten ikusteko. Ondoren, horietako zenbait lehenetsiko dituzte, datorren urtean gauzatuko diren proposamenak hautatzeko. Azkenik, harturiko erabakien komunikazioa egingo da. Horretarako, parte hartu duten pertsonen erantzun zuzena emango zaie, informazio liburuxka bat bidaliko da herriko etxe guztietara eta prozesu guztia laburbilduko duen txostena ikusgai jarriko da Urnieta.eus webgunean.

231 GALDETEGI JASO ZITUZTEN, ETA HORIETATIK 10 BAINO EZ DITUZTE ATZERA BOTA

2023KO UDAL AURREKONTUETAN 150.000 EURO EKIMEN HAUETARA BIDERATUKO DIRA



Herme Gonzalez, PSE-EE. AIURRI

Arreta hurbila ematea aldarrikatzen duen mozioa

Arrakala digitala saihesteko eskaerarekin bat egin dute Urnietako hiru alderdiek

Erredakzioa URNIETA

Herme Gonzalez udal talde sozialistako bozeramailea pozik agertu da PSE-EEK martxoko osoko bilkuran aurkeztutako mozioak gehienezko adostasuna lortu zuelako. Udalak, mozioaren bidez, Urnietan presentzia dutenen enpresa eta erakundeei, bereziki adineko kontsumitzaileei arreta "pertsonalizatua, hurbila eta azkarra" emateko eskaera luzatuko die. Are gehiago, hainbat zerbitzu edo produktuak kontratatzeako sistema digitalak edo makinak erabiltzeko derrigortasuna kentzea eskatuko du, eta baita kalean itxaroteko denbora ekiditea ere.



Luke Goñi zinegotzia eta Juan Maria Urruzono Gurutze Gorrikoa. UDALA

Ukrainiarrei laguntza emateko lankidetzaz, Gurutze Gorriarekin

Sortu den krisi humanitarioari aurre egiteko, laguntza bideratuko du Urnietako Udalak, Gurutze Gorriaren bidez

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak lankidetzahitzarmena sinatu du Gurutze Gorriarekin, Ukrainak bizi duen egoerari aurre egiteko. Hala, 3.000 euroko laguntza eskainiko dio erakunde humanitarioari, giza arloko jarduerak eta proiektuak gauzatu ditzan. Horrela, eragindako herritarren sufri-

mendua arindu eta giza bizitza zaindu nahi du, baita kolektibo ahulenei arreta berezia eskaini ere. Ukrainiako herritarrekin elkartasuna adierazi ahi du Udalak, ekimen honen bidez: "Justifikaziorik gabeko egoera horrek krisi handia eragin du, eta horrek berehalako erantzuna eskatzen du".



Elkartasuna adierazi dute urnietarrek. AIURRI

Aniztasun funtzionala duten haurrentzat kirola egiteko aukera

Hitzarmena sinatu berri du Urnietako Udalak Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioarekin

Erredakzioa URNIETA

Aniztasun funtzionala duten haurrei begira ipini da lanean Urnietako Udalak, kirol jarduerak egin ahal izan dezaten aurrerantzean. Hitzarmena sinatzeko ekitaldian izan ziren Jorge Se-

gurado Urnietako alkatea eta Blanca Aranguren Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko presidentea. Urnietako Udalak hileko diru kopuru bat emango dio Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioari, programan parte

hartzeko duen eta herrian errolatuta dagoen adingabe bakoitzeko. Hori da ekarpenetako bat, laguntza lerro gehiago hitzartu dituztelako. Aniztasun funtzionala duten haurren kirol hasapen-programa Urnietako kiroldegian eta Andoaingo Allurralde Kiroldegian eskainiko da ikasturte honetan.

Helburua argia da: parte-hartzaile guzten gizarteratzea sustatzeko ahaleginak egitea. Bat datoz Udalak eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa.



Segurado alkatea eta Aranguren federazioko ordezkaria sinadura ekitaldian. UDALA

PROTAGONISTA

"Ezagutzen gaituzten herritarren erantzuna oso positiboa izan da beti"

LUIS CAMARERO ALDIEN HEDAPEN-ARDURADUNA

Illarramendiko merkataritza eremua zabalduz doa. Aste honetan ateak zabaldu ditu ALDI supermerkatuak. Egitasmoaren berri eman du merkatalgunearen arduradunak

Erredakzioa ANDOAIN

Apirilaren 6ko inaugurazioarekin, ALDIk lau denda ditu jada Gipuzkoan. Zergatik aukeratu duzue Andoain?

Herriko jendeari erosketa-aukera eroso, erraz eta merke bat eskaintzeko asmoz gatoz Andoainera, baina lasartear, hernaniar, billabonatar eta urnietarrei ere luzatzen diegu eskaintza.

Andoaingo ALDI berri honekin probintziako presentzia handituko dugu, dagoeneko irekita dauzkagun Donostiako, Oiartzungo eta Eibarko dendez gain. Dagoeneko ezagutzen gaituzten herritarren erantzuna oso positiboa izan da beti, eta horrek inguruan hazten jarraitzera animatu gaitu.

Andoain eta inguruko biztanleentzat zein ezaugarri ditu lehengo asteazkenean inauguratu zen dendak?



Luis Camarero Aldiren hedapen-arduraduna da. ALDI

Ireki dugun denda Buruntza auzoko Illarramendi hiribideko 1. zenbakian dago, 16 langile arituko dira lanean eta 1.100 m²-ko merkataritza-zabalera dauka.

Lehen solairuan saltokia dago, eta 0 solairuan, 70 toki baino gehiago sartzen diren eta auto elektrikoak kargatzeko bi karga-puntu dituen aparkalekua dago.

Gure bezeroek ALDI honetan, gure gainerako dendetan gertatu ohi den moduan, erosketa osatu bat egiteko 2.000 produktu baino gehiago aurkituko dituzte, eta horietatik % 86 gure markakoak dira. Gainera, gure produktuen % 80 hornitzaile nazionaletatik eskuratzen ditugu.

Zein sailez osatuta dago supermerkatu berri hau?

Denda berrira gerturatzen diren herritarrek produktu freskoen eta tokian tokiko produktuen aukera zabala aurkituko dute El Mercado gure markaren barnean: fruta, barazkiak, haragi eta arrain freskoa eta arrautzak. El Horno ogien eta opilen sailean, bezeroek ogia nola erretzen den ikusiko dute, gustukoa aukeratu eta nahieran moztu ahal izango dute. Beste marka aipagarri batzuk ere baditugu, besteak beste: La Tabla, urdaitegiko gaiena; GutBio, produktu biologikoen marka, dendako hainbat sailetan integratuta dagoena eta gure bezeroek gero eta gustukoagoa dutena; edota Mildeen kosmetika-marka eta Biocura kosmetika naturalena.

Gainera, gure faktore indartsueneko bat bazarreko atala da, astero eta prezio oso

lehiakorretan, askotariko produktu sortak eskaintzen ditugu; adibidez, arropa, etxetresna elektronikoak edo etxerako produktuak. Horrela, bermatzen dugu bezeroek behar duten guztia aurkituko dutela gure supermerkatuetan, unean uneko berrietasunetara moldatzen den eskaintza batekin.

Iaz 40 supermerkatu inauguratu zenituzten eta, aurtun, 50 inguru irekitzea espero duzue Espainiako Estatuan. Zein pisu dauka EAEk zuen hedapen-politikan?

EAE oso eremu garrantzitsua da guretzat, gure hedapen-planean. Denda honen irekierarekin, guztira, hamabost denda dauzkagu EAEan, eta gure helburua hazten jarraitzea da datozen urteetan.

Nolako da ALDIren eta tokiko hornitzaileen eta ekoizleen arteko harremana?

ALDIin gertuko hornitzaileak erabiltzen ditugu gure dendak hornitzeko, eta konfiantzazko eta epe luzerako harremanak sortzen ditugu, balio-katearen mesedetan.

Egia esan, gure eskaintzaren %80 Espainiako Estatuko 400 hornitzailek baino gehiagok ekoitzi eta hazi dituzten produktuak dira.



AIURRI

Zarata saihesteko lastozko hesitura, lehen eta orain

Gipuzkoako Foru Aldundiak, behin behineko irtenbide modura, zarataren aurka lastozko hesitura jarri zuen Aita Larramendi Ikastolaren instalakuntzen ondoan. Denbora aurrera doa eta azken asteetako eguraldiarekin lastoa gordetzen duen estalkia askatzen hasi da. Haizearen arabera, gainera, errepidera gerturatzen da plastikoa.

Egitura beraren forma, lastozkoa izanik, aldatuz joan da eta erdialdera erortzen hasita dago. Berandu baino lehen, Foru Aldundiak irtenbidea bilatu beharko dio. Zaratatik geroz eta gutxiago babesten du, eta, bereziki, ibilgailuentzat arriskutsu izan daiteke. Berez, panel finkoak jarri behar dituzte Andoaingo eremu horretan.



POSTONTZIA

MARI CARMEN ALONSO IRIGORAS KALE NAGUSIKO BIZILAGUNA

Arratoi-izurria



"Merkatu-eremuan astean bi egunetan sortzen den zaborra dela eta, arratoi-garbiketa handiagoa egin beharko litzateke". AIURRI

Tarteka, udaletxera deitzen dut, Oria ibaiaren atzealdean, Juanita Alkain plazatik gertu, arratoei pozoia jartzeko dauden hiru kaxak bete ditzaten. Hiru kaxa baino ez daude Txistokitik Santa Kruz zubiraino. Horregatik, pozoia jartzeko langileak deitzen didanean, etxean egon behar izaten dut, eta kaxak eta arratoien gordelekuak non dauden adierazi behar izaten diot. Ikusten denez, deitzen ez baduzu, ez dira etortzen, eta asko igo da arratoien kopurua. Izan ere, urte batzuk daramatzagu jaisten ari dela arratoi-garbiketa, eta duela 10 edo 15 urte jartzen zen pozoï-emariaren erdia ere ez da jartzen.

Kutxa berezi horiek lortzen dute urriagoa izatea ibaira isurtzen den pozoia, baina hor non arratoiak hiltzeko langileak behin esan zidan inbaditzaileak gu garela (gizakiak), eta ez beren

habitatean bizi diren arratoiak! Oraindik orain, langile hori berriro etorri, eta aipatu dit eremu hori URA Euskal Agentziarena dela, ezin duela pozoirik jarri, eta beraz, ez dela gehiago etorriko.

Arratoi-garbitzaile animalista bat al dugu?

Arratoiak hiltzeko enpresa ahalik eta lasterren aldatzeko eskatzen diot Udalari.

Lursail hori katrastoan dago, eta URAko zuzendariak alor horretako udal funtzionarioari gutun bat bidali zion horixe baieztatuz, eta baita ere telefonoz hots egin ere. Berriz ere argitu nahi nuke eremu hori Udalarena dela, eta ez URArena. Pozoia jartzen duen langileari ere frogatu egin behar diot horixe!

Merkatu-eremuan astean bi egunetan sortzen den zaborra dela eta, arratoi-garbiketa handiagoa egin beharko litzateke. Baina zer esaten digute? Legea aldatu dela eta

pozoirik ezin dela bota. Orduan, zer egingo dugu?

Arratoi-garbitzailea etortzea lortu genuen beste txanda batean, belarra goian zegoela eta ez zuela ezer jarriko esan zigun; tonu mehatxatzailea erabiliz bezala, zera esan zigun: "Belarra moztu arte, ez nazazue deitu".

Aipatzen dudan jarduera horien ondorioz, ugaritu egin da arratoien populazioa. Era berean, oso profesionalak ez diren langileak etorri izan dira, ingurura begiratu batera pozoia non jarri ez dakitela diotenak. Zintzilik daramaten saskitxo irigarria da lurraren hedadurarako eta dagoen arratoi-kopuruarentzat.

"JUANITA ALKAIN PLAZATIK GERTU UGARITU EGIN DA ARRATOIEN POPULAZIOA"

KOMUNITATEA

MINTZALAGUNAK ANDOAIN

Bidelaguna behar dugu

Euskaraz praktikatzeko elkartzen diren lagun talde batek bidelaguna behar du, alegia, euskaraz erraz moldatzen den herritarra elkarrizketan laguntzeko.

Astelehenetan, 17:30etan egiten dute hitzordua.

Euskararen alde zure hondar-alea jarri nahi al duzu? Euskaraz praktikatu nahi dutenei lagundu nahi al diezu? Bada, mintzalagun taldea aukera aproposa da horretarako. Andoainen, gaur egun, 37 lagun ari dira lagun giroan elkartzen euskaraz jarduteko. Hala ere, talde horiek ongi funtziona dezaten, ezinbetestekoa da bidelagunen laguntza, hau da, euskaraz erraz egiten duten herritarren laguntza. Ez da euskararen

aditua izan behar, ezta euskara titulurik eduki behar ere. Astean ordubete libre izatea nahikoa da parte hartzeko.

Whatsappa: 688 746 643.



Afitxa. MINTZALAGUNAK

KOMUNITATEA

ANDOAINARRA EUSKARAZ ANDOAIN

Aitorpena, euskaraz

Diru kontuak gaztelaniaz egin ohi ditugu normalean, ezta? Ohitura falta, hitz teknikoak, segurtasun falta... Gero eta aukera gehiago dago errenta aitorpena euskaraz egiteko. Eman jauzia!

Autolikidazio proposamena aprobetxatzea da aukerarik onena! Proposamena onartzerakoan, telefonoz edo internetez, galdetuko dizute euskaraz ala gaztelaniaz nahi duzun. Aukeratu euskara. Handik aurrera harremana euskaraz eskainiko dizute Ogasunetik. Bestalde, zure herrian badira euskaraz ere zerbitzu ona emango dizuten profesionalak. Behar dituzun

azalpen guztiak emango dizkizute errenta aitorpena euskaraz ere uler dezazun.



Errenta aitorpena. ANDOAINARRAEUSKARAZ



ENDIKA GARCIA PEREZ

Abokatutza orokorrean • Gai penalak • Isunak • Familia • Lan aferak

Zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz ematen dut.

BURUNTZALDEA · DONOSTIALDEA. Deitu konpromezurik gabe.

616 557 141

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



"Kaleko abokatuak gara, eta, gainera, euskaldunak"

ENDIKA GARCIA PEREZ ABOKATUA

Donostialdean trebatzen ari da abokatu lanetan, eta eskualdean zabaldu nahiko lituzke bere zerbitzuak

Jon Ander Ubeda URNIETA

Abokatua zara, orgibidez.

Abokatutza orokorra eskaintzen duzu. Zein bezero mota hurbiltzen ari zaizu?

Donostitik egiten dut lan, Laia kolektiboaren barnean.

Kaleko abokatuak garaia esan ohi dugu; ez dugu trajerik janzten. Ohikoak diren jardueretan lan egiten dugu. Familia arloan, dibortzioak nahiz herentziak, eta, arlo administratiboan, isunak eta abar. Lan-arloko aferak ere iritsi zaizkigu bulegora, kaleratzeak adibidez. Arlo penalari ere heltzen diogu.

Zuen alde, esan dezagun, euskaraz eskaintzen duzuen zerbitzua da.



Endika Garcia Perez urnietarra. AIURRI

Bai. Abokatutzan, oraindik ere, hizkuntza hegemonikoa gaztelania da. Lehen esan

bezala, kaleko abokatuak gara eta, gainera, euskaldunak. Balio erantsi hori badugu.

Zerbaitetan nabarmentzen ari al zarete?

Garai batean, oso ohikoa zen abokatuak arloka espezializatzea, baina, gaur egun, alor guztietan trebatu beharra dago.

Pandemia garaian isunei buruz asko hitz egin da.

Hainbat abokatu elkartu ginen pandemia garaian, ERTEak eta isunak zirela-eta, dei ugari jaso genituelako. 80ko hamarkadako lege bat aplikatzen zen, baita Mozal legea ere, eta lege horien aplikazioa oso interpretazio ezberdinetara zabalik zegoen. Arbitrariedade handia egon da, kasu askotan. Eta horri nola aurre egin ez zegoen batere argi. Adibide bat jarrita, zakur baten jabeak isuna jaso zuen bere etxetik hainbat metrora zegoelako. Horrelako kasuak iritsi zaizkigu.

Oro har, epaiketa saihesteko negozio-argitaratzen izaten al zarete?

Halaxe da. Kontziliazio saiakerak egiteko aukera dago, eta askotan akordioa bilatzen da.

Lan handia ematen al dute familia alorreko kasuek?

Estafa modukoak lantzea egokitu zait, azken aldian. Demagun, ibilgailua erosi duzula, eta ibilgailu horrek ez ditu salgai jarri zituzteneko baldintzak betetzen.

Horrelako kasu asko landu ditut. Dentix hortz-klinikaren kasuan, bezero askok bete ez zen zerbitzu bat kontratatatu zuten. Enpresa hori itxi zuten, eta bezero askoren eskubideak airean geratu ziren.

Erreklamazio ugari egin genituen, eta batzuk Dentix enpresaren erosle berriarekin konpondu ziren baina beste asko ez. Kontsumobidera jo dugu, kasu hauetan.

Zer da zure lan esperientzian bereziki gogoan duzun kasua?

Abokatutza masterra egin nuen, eta giza eskubideei buruzko beste bat ere. Lankide baten laguntzaile aritu nintzen Frankismoaren garaiko kereilak kudeatzen. Ondarroako eta Elgetako kasuak landu genituen. Asko ikasi nuen kasu horien lanketan.



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietak).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



INSTRUK



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Urnietako
udala



Azken jaia iragartzeko agerraldia egin zuten Donostian, asteartean. AIURRI

Mugak hautsi ditu aurtengo Korrikak

Bi mila kilometrorik gora egin ostean, eta, hango eta hemengo euskaldunen babesa jaso berritan, ostiral goizean igaroko da Korrika Andoain eta Urnietan barrena. Azken txanpan sartuko da, igandean amaiera emango baitzaio Donostian.

Erredakzioa URNIETA

Apirilaren 8an, ostiralarekin, goizeko 08:13an, hain justu ere, iritsiko da Korrika gurera. Non-dik? Lasarte-Oria eta Urnieta banatzen dituen menditik. Herrian barrena ibili ostean, Andoain aldera joko du, gora eta beheara, tipi-tapa, tipi-tapa ibiltzeko, eta lekukoak Aiztondoko kale-kantoi guztiak zeharka ditzan. Betiko lez, eta, ohiturari jarraiki, herrietako eragileek, Udalek zein eskolek hartuko dute lekukoa, eta, atzetik jarrika izango dira gainerako euskaltzaleak.

Martxoaren azken egunean ekin zitzaion Korrikaren 22. edizioari. Zazpi probintzietan dabil, hara eta hona; zenbaitetan, jendez gainezka; beste hainbatetan, lau katurekin. Baina, badabil. Badabil herrixketan barrena, badabil hiriguneetan nahiz mendi tontorren bueltan; badabil arnaguneak diren herrietan, eta baita ia euskal hiztunik bizi ez den txokoetan ere; badabil eguzkipean, eta gau hotz elurtuetan. Halere, Euskal Herriko mugak gainditu ditu itzuliak, izan ere, euskal diasporan korri egiteaz gain, beste hainbat hizkuntzetara ere itzuli da Korrikaren mezua, hala nola, bretoierara edota galegora.

Donibane Garaziko adierazpena

Horrez gain, lasterketa aitzakia gisa harturik, hitzordu garrantzitsua izan zen Donibane Ga-

razin, han justu ere, lekukoa iritsi baino lehen. Izan ere, AEK eta beste zenbait euskara-sustatzaileek agerraldia egin zuten “euskararen doako ezagutzaren unibertsalizazioa erdiesteko”.

Bide horretan, administrazioari erreparatu zioten, konpromisotik ekintzetara salto egiteko eragile inportantea delako, AEK-ren esanetan: “Jakina da pauso esanguratsuak eman direla, baina gehiago emateko garaia heldu da, hiztunen arteko desberdinkeriarekin amaitzeko. Oraindik hizkuntza-politikek ez dute hiztunen arteko berdintasuna lortu”.

Amaiera Donostian, jai-giroan

Hamaika eguneko lasterketan dabil, helmuga zehatz batekin: Donostian amaituko da Korrika igande honetan, gutxi gorabehera, eguerdiko 12:30ean, Boulevard Zumardiara ailegatzen denean lekukoa, 2.500 kilometro egin ondoren. Aurtengo edizioan, sudurra gorritz pintatuta etorriko da lekukoa, Pirritx Porrotx eta Marimotots omenduko baitituzte. Sentitu, pentsatu, ekin, hitz-ekin! Segidan, bertaratutakoei helduko zaie festarako tenorea. Makina bat eragilerekin elkarlanean antolatu du AEK-k egun osoko amaiera-ekitaldia, antolatzaileek diotenez, auzolanean prestatutako festa “handia bezain berritzailea”: zenbait gunetan banatuko da jai-giroa, adin guztietako publikoarentzat.

HITZEKIN



ANDOAINGO UDALA

andoainDARRA
euskarazAndoain
euskararen aldeAndoain
elkarlanean

Lekuko-eramaileak Korrikaren historian



Axeri Dantzako kideak 2009n Martin Ugalde parkean. AIURRI



Egape ikastolako ikasleak 2015ean. AIURRI



Poxta Zahar elkarteak egin zuen herriko lehen kilometroa 2019an. AIURRI

Lekuko-eramaileak, ostiral honetan

URNIETA

2006 KM | 08:13:00

- Kostegi ondoan: Zanpatuz Mendi Elkartea.

2007 KM | 08:26:00

- Adarraga-Portxeta parean: Arrats Elkartea.

2008 KM | 08:28:00

- Herriaren sarbidea: Urnietako AEK.

2009 | 08:29:00

- Idiazabal: Egape ikastola.

2010 | 08:30:01

- Igogailua: Magale, Lehen Hezkuntza.

2011 KM | 08:31:00

- Magale sarrera: Egape dantza taldea.

2012 KM | 08:35:00

- San Juan plaza: Urnietako Udala.

2013 KM | 08:36:00

- Arantzubiko biribilgunea: Poxta Zahar.

2014 KM | 08:38:00

- Anbulategi zaharreko biribilgunea: EH Bildu.
- Salestar ikastetxearen parean: Magale, DBH.

ANDOAIN

2015 KM | 08:48:00

- Irurain gaina: Aita Larramendi ikastolako ikasleak.
- Biribilgunea: Arrospe enpresa.
- Super Amara parean: Udal langileak.

2016 KM | 08:54:00

- Braher ondoan: Euskalzaleen Topagunea.
- Krafft ondoan: Latz kooperatiba.
- Cortusa ondoan: Martin Ugalde kultur parkeko langileak.

2017 KM | 09:01:00

- Martin Ugalde: Berria egunkariko langileak.
- Kaletxiki, Berrozpe etxea: La Salle-Berrozpeko ikasleak.
- Arantzibia biribilgunea: Hurria Sahara elkarteak.
- Erroitz kalea, La Salle eraikina: La Salle-Berrozpeko langileak.

2018 KM | 09:07:00

- Goikoplaza: Andoaingo Udala.
- Doktor Huitzi, Ondarreta: Zumeatarra, Peña Santa Krutz, Hogar Extremeño elkarteak.
- Doktor Huitzi, tirolinaren parean: Aita Larramendi ikastolako batzordea.
- Doktor Huitzi amaiera, Rikardo Arregi kalea: Urki dantza taldea.
- Stop parean: EH Bildu alderdia.

2019 KM | 09:14:00

- Ambrosia Olabideren sarrera: EAJ-PNV alderdia.
- Pio Baroja-Iturzaeta bidegurutzea: PSE-EE alderdia.
- Daitona taberna: Aiurri-Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
- Iñaxi parean: Ondarreta-Leizaran ikastetxeak.
- Bastero Plaza Morea-Andreurdinarena, Morea: Emeki.
- Caja Laboralaren parean: Lebiton Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.
- Kaleberria, Maiza zinemaren parean: Aita Larramendi ikastolako langileak.

2020 KM | 09:20:00

- Bekoplaza, zubiaren hasiera: SEGA San Esteban Auzoko Gazte Asanblada.
- Arruti parean: Andoaingo emakumeak.
- Zumeako birigilgunea: Axeri-Dantza.
- Asuncion klinika parean: Andoaingo Mintzalagunak.

2021 KM | 09:27:00

- Nairu taberna parean: Andoaingo Asanblada Feminista.
- Aiztondo-Gurmendi bidegurutzea: Ezker abertzalea.
- Aiztondo kalea, 16: Zuenela elkarteak.
- Car parean: Oroituz, Andoainen elkarteak.
- Sorabilla-Aduna aldera: Euskalduna MT, Leitz, Leizaran eskubaloia, Gazteleku, Txirrindulari Eskola, Ganbara Saski eta SD Euskalduna.



HEMEROTEKA

MITXEL ELORTZA EXEA
[ALEA.EUS GUNETIK]

Konpromisoa

Martxoaren 31n hasi zen Korrika, ilusioa, poztasuna eta barrenak mugitzen dizkigun euskararen aldeko lasterketa. Amurriotik Donostiara, HitzEkin leloarekin, Euskal Herriko txoko gehienak zeharkatuko ditu. Baina erreparatu diezaiozun goiburuari. Hizkuntza hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza komunitatea. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko momentua da, alegia.

Sarritan, euskararen aldeko dinamikak folklorizatu eta egun bakarreko ekimen gisa ulertzen dituzte askok. Euskararen Eguna, Euskaraldia, Korrika... Korrika egite hutsarekin bakoitzak bere aletxo jarriko diolakoan euskarari. Oraingoan, Korrikan parte hartuko duen orori konpromisoa eskatuko diot. Badakit ez naizela inor besteei ezer eskatzeko, baina askotan ikusi izan ditut ezagun asko euskararen alde korrika, eta egunerokoan erdararen itsasoan bizi dira.

Egin dezagun gogoeta. Horregatik, egun bakarreko konpromisotik harago joan behar da. Denon konpromisoa ez da berdina izango, bakoitzaren testuingurua edota errealitatea ezberdina izango delako. Berdin dio, txikia izanagatik ere, ekin elkarrekin, hitzen ekinarekin.

Tipi-tapa tipi-tapa, ekin konpromisoari.

Korrika Txikia ostiral goizean

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei begira, eskualdeko ikastetxeek Korrika Txikian parte hartuko dute.

- Urnietan 10:00tan abiatuko dira Goi Menditik Zubitxo plazaraino.
- Andoainen 10:30etan Goikoplazatik abaituko dira, Kale Nagusitik Zumeaeraino eta itzulera Kaleberritik udaletxeraino.



TWITTER

Korrikako irudia, eta txioa

Aurtengo edizioako irudietakoa izan da. Gaez, hotzez, eta elurra mara-mara ari zuela Korrikak bidea egiten jarraitu zuen. Errepidean ibilgailuak arazoak izan zituen aurrera egiteko eta korrikalariak lekukoa eta furgoneta bera aurrera eramaten asmatu zuten. Ainara Rodriguez Andoaingo kazetariak idatzitako txioak irudiak bezain besteko zabalkundea izan du.

Zuzeneko emankizuna

Korrika.eus gunean hogeita lau orduz lasterketaren jarraipena egiteko aukera dago. Ehunka dira uneoro dituen bisitaldiak. Hamaika telebistak jaraipen zabala eskaini dio Korrikari eta baita Euskal Telebistak ere. Lasterketak duen irismenaren seinale.



AIURRI



AIURRI

Kultur ekitaldiak, egunotan



2019ko edizioako peto-potea. AIURRI

Apirilak 7, osteguna Astekari honetako lekuko eramaileen zerrendan ikusten denez, askotxo dira Andoainen Korrikarekin bat egingo duten gizarte eragileak. 18:00tan Basterotik peto-potea abiatuko da, eta 19:00tan Zumea plazan ekitaldi nagusia izango da.



Elvi sabeliztuna. KORRIKA

Apirilak 8, ostirala Elvi sabeliztunak "Aho zabalik" izeneko emanaldia eskainiko du Urnietako Zubitxo plazan, iluntzeko 19:00tan hasita. Haur eta familiei begira antolatutako ekitaldia da. Baina, oro har, euskaltzale guztiei.



"Frontona" ikuskizuna, iazko abuztuan, Goiburuko pilotalekuan. AIURRI

Apirilak 9, larunbata Unai Ormaetxea, Janire San Sebastian, Anne Maiza, Josu Artutxa, Iñigo Otaegi eta Andoni Egaña seikoteak "Frontona" ikuskizuna eskainiko du Goikoplazan, eguerdiko 12:00tan hasiko den saioan.



80 eta 40 kiloko harriekin txapelketa herrikoia antolatu dute, ea nork altxa bata edo bestea, eta nork txanda gehiagotan. **AIURRI**

Santa Krutzeko bi harri trakets, nork altxa?

HERRI KIROLAK *Harri traketsak* heldulekurik ez edukitzeagatik eta pisua eta itxura ez arautua izateagatik dira famatuak. Bada Santa Krutzetako jaiek ere badute bere harri traketsa; hobe esanda, bi izango dira, eta 40 eta 80 kilokoak

Xabier Lasa ANDOAIN

Bi harriekin "Santa Krutz Harri Txikien I. Txapelketa" antolatu dute Bekoplazan apirilaren 29era-ko, arratsaldeko 19:30ean. Mistoa izateaz gain herrikoia ere izango da lehia, normalki plazetan ibiltzen ez diren kirolarientzat bideratuta, alegia.

Harri bakoitzarekin ezaugarri desberdinak jarri dituzte. 40

kilokoari dagokionez, denbora jakin bat jarriko dute nahi adina edo ahal adina txandatan altxa ahal izateko. 80 kilokoarekin, berriz, denbora libre izango da.

Bi harriak Bekoplazan ipini, eta hortik aurrera, abilidadea libre harri-jasotzaileentzat! Nolanahi ere, aurretik bi harriekin probak egiteko aukera edukiko

dute parte-hartzaileek. Horretarako, zenbait egun zehaztuko dituzte apirilean zehar. Harriak Goiburu auzoko Talai baserrian daude, eta hara joan beharko dute probak egitera.

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, 677153422 telefonora hots egin beharko dute lehenbizi, harria menperatzeko gogoz dabiltzanek. Gaineratu dutenez,

joan den igandean lehenbiziko deialdia egin zuten, eta zazpi lagun agertu ziren Talai baserrian. Hurrengo deialdirako lagun gehiago espero dituzte, edo behintzat horretara animatzeko gonbitea luzatu dute, "azaldu eta probatu; gutxieneko teknika erabiliz gero, ez da zaila mendean hartzea. Igandean saiakera egin zutenek, txikiena behinik behin, erraz jaso zuten!".

Euskal Herrian tradizio handia dauka tokian tokiko harri traketsa altxatzearen desafioko. Erreka zuloetan-eta topatutakoak dira harri traketsak. Baldarrak

eta bihurriak izaten dira, eta normalki zailak dira altxatzen; jasoaldi gutxi egiten dituzte horiei heltzen dieten harri jasotzaileak. Jaieten edo egun seinalatueta plazaratzen dituzte, ea nor animatzen den bizkarre-ramatera.

Amezketako Albitzuri Andi da zaharrena eta ezagunena ziurrenera, baina beste hainbatetik badaukate urtetako ibilbidea egina.

Makina bat harri trakets

Hona Euskal Herrian barreiatuta dauden zenbait harri ospetsu: Amezketako bi harriak (Albitzuri Andi 154 kg., eta, Altxiko Harria 140 Kg.), Igeldoko Harria (134 kg.), Aldaba Harria (130,3 kg.), Etxauriko Harria (136,5 kg.), Elgoibarko Harriak (Belaustegi Harria 146 kg., eta, Mintxeta Harria 125 kg.); Aiako Arrautza Harria (154 kg.)...

ANTOLATZAILEEK, HARRIAK AURREZ PROBATZERA ANIMATU DUTE JENDEA



Txapelketako kartel iragarlea. **SANTA KRUTZ JAI BATZORDEA**

22.korrika

Aiurri.eus webgunean KORRIKA 2022 atal berezia



HITZKIN

Argazkiak, bideoak... Aiurri Korrikarekin bat eginik



Apezetxea eta Aldabe, aurreko asteburuan. ORIAMENDI

Berria erremon-te txapelketako finala, larunbat arratsaldean

ERREMONTEA Aldabe eta Apezetxea izango dira Loitegi eta Zaldia laren aurkariak, 16:30an hasiko den lehia

Erredakzioa URNIETA
Finalaurrekoan Aldabe eta Apezetxea aise nagusitu ziren Urrutia II.aren eta Labakaren aurka (35-19). Pronostikoa bete zen eta gorriak nagusitu ziren hasieratik bukaerara. Oriamendiren arabera, "Apezetxea izan zen finalerdiko erremontista nabarmenena, 11 tanto saketik eta bost piloteoan egin eta gero. Goizuetarraren hirugarren garaipena da profesionaletan jotatutako hiru partidatan".

Hasierak erakutsi zuen partida nolakoa izango zen. 11-3 aurreratu ziren gorriak. Pixkanaka gora egin zuten errentak (18-9, 23-11, 31-18) eta alde handiena azken txanpan iritsi zen. Bi bikote finalistak izan dira txapelketako onenak. Ligaxkan elkarren aurka jokatu zuten eta Aldabek eta Apezetxeak 35-34 irabazi zuten.

Partidaz gozatzeko aukera dago Aiurriren eskutik. Informazioa 943 300 732 telefonora deituta.



Urnieta Quel Abogados taldea. UKE

Leizaran eta Urnieta taldeen denboraldi bikaina

ESKUBALOIA Azken txanpan sartuta, Andoaingo taldea lidergotzan da, eta urnietarrak bosgarren

Erredakzioa ANDOAIN
Azken txanpan sartuta, Leizaran taldeko neskak lehen postuan daude, 17 garaipen lortuta. Urnietak Orion galdu zuen, eta bosgarren postuan darrai. 27 punturekin, Elgoibarrek eta Tolosak 3 puntu gehiago dituzte.



Roglic Itzuliko lehen etapan, erlojuaren aurkako etapan Hondarribian. XABIERAZKUE

Euskal Herriko Itzulia, atal berezia Aiurri.eus webgunean

TXIRRINDULARITZA Roglic eta Alaphilippe handien garaipenak Itzuliak duen maila bikainaren isla da

Erredakzioa ANDOAIN
Euskal zaletua goi mailako txirrindularitzaz gozatzeko aukera izaten ari da aste honetan. Itzulia jokoan da larunbata bitarte, eta Andoni Urbistondo etapa bakoitzaren kronika idazten ari da webgunean. Lehenengo etapan Remco Evenepoel flandiarrek bakarrik egin zion aurre Roglic esloveniarrari. 7 kilometrotan 18 segundo kendu zizkion Thomasi, Yates eta Vlasov-i, 20 Jon Izagirre eta Vingegaard-i, eta 29

Pello Bilbaori. Asteak aurrera joan ahala ikusiko da Roglic bigarren jarraian irabazteko gain den, ala ez. Bigarren etapa luzeena izan zen, 207 kilometrotakoa eta euskaldunak izan ziren Ibon Ruiz, Ibai Azurmendi, Ander Okamika eta Julen Amezketaren protagonista. Balentria lortzear ziren, baina maila handia denean garaipena oso garesti dago. Alaphilipperek irabazi zuen etapa. Itzulia Aiurri.eus gunean jarrai daiteke.

ITZULIA

AIURRI.EUS | @aiurri

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

berria

ERREMONTE TXAPELKETA 2022

zuk badakizulako

GALARRETA, 31. ALAI

APIRILAK 9 LARUNBATA | 16:30-TATIK AURRERA

ETXARRI • JUANENEA	ALDABE • APEZETXEA	ANSA II • BARRENETXEA IV
GOIKOETXEA V • MARTIRENA	LOITEGI • ZALDUA	URRIZA • LARRAÑAGA

ORIAMENDI

ERREMONTEA BIZIRIK

SS SUKIA



Aiert Labayen, senior taldeko jokalaria. UKE

Ligako azken partida Urnietan, eta salbazioa eskura dute

ESKUBALOIA Euskadi mailako txapelketan jarraitzeko aukera eskura dute urnietarrek, jardunaldi baten faltan

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Artola Harategia taldeak majo sufritu zuen Bizkaia aldean, azken jardunaldian. Kostata irabazi zuen (23-27). Galdakao taldeak maila galdu badu ere, oso garesti saldu zuen garaipena. Garaipenak 12 puntu batzea ahalbidetzen du, Euskadiko txapelketako jaitsiera fasea amaitzeko jardunaldi bakarra falta denean. Bigarren postuan daude orain, jaitsiera saihesteko bidean.

JAITSIERA SAIHESTEKO LIGA

AURREKO ASTEBURUA

Galdakao A-Urnietako 23-27

SAILKAPENA

1	Muskiz	16 puntu
2	Urnietako Artola Harategia	12 puntu
3	Deusto Loiola	10 puntu
4	Urdaneta	10 puntu
5	Galdakao A	4 puntu
6	Gure Auzune	4 puntu

PARTIDA URNIETAN

Azken partida:
Urnietako-Urdaneta **lg, 11:00**



Guzman, Zumeatarra taldekoa. AIURRI

Zumeatarrako kide ugari Zizurkilgo Duatloian

DUATLOIA Gipuzkoako txapelketa jokatu zen, negu giroko eguraldi hotzarekin

Erredakzioa ANDOAIN

Arizaga zoztzigarren sailkatu zen nesketan, eta Duarte mutiletan hamazortzigarren. Guzman, Izagirre eta Iker Alkain izan ziren Zumeatarrako ordezkarietakoak. Zubillaga zizurkildar-urnietarrak ere parte hartu zuen.



Martxoaren 27an Azpeitia alderan aritu ziren. Irudian, Atxaga. ANDOAINGO

Hotzari aurre eginez, lehiakor aritu ziren Andoaingo kideak

TXIRRINDULARITZA Junior mailakoak Zegaman aritu ziren eta emakumezkoak Noja aldeko errepideetan

Erredakzioa ANDOAIN

Junior mailakoak denboraldi betean murgilduta daude. Azken lasterketa Zegaman izan zuten, aurreko larunbatean. Negu giroko eguraldiari aurre egin behar izan zioten. Aurreko lasterketan bezalaxe, Iker Atxaga izan zen Andoaingo taldeko lehena (14. postuan helmugaratu zen). Atzetik iritsi ziren Iker Ugarte-mendia (26) eta Markel Etxarri (29). Igande lasterketa berria dute Elgoibarren.

Emakumeak, Noja aldean

Joan zen igandean Kantabria aldeko Noja herrian zehar ego-kitutako ibilbidean lehiatu ziren Andoaingo neskak, kadete eta junior mailan. Hotz handia pasa zuten, busti-bustia zegoen asfalto gainean lehiatuz. Junior mailan, Izaro Zuriarrain 11. postuan sailkatu zen. Kadete mailan Irati Aranguren izan zen lehena (22). Atzetik iritsi ziren Intza Navarro (27), Izaro Etxarri (45) eta Itziar Alkain (50).

korrika.eus

22.korrika

JAJA!

DONOSTIAN

APIRILAK 10

12:30

Boulevard Zumardia

KORRIKA

BUKAERA

HITZETIKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

GUNE SEGURUA

Hemen, ERASORIK EZ!



Ganbara Saski taldeko artxiboko argazkia. GANBARA

Ganbara Saski Taldea, denboraldi berriari begira

SASKIBALOA Andoaingo klubak prestaketa saioak abiatuko ditu maiatzaren 6an, Allurralde kiroldegian

Erredakzioa ANDOAIN

Aste Santuak eta Santakruzak igarota, taldeak datorren denboraldia prestatzeko ekingo dio, eta 2009-2010 urteetan jaiotako neska-mutilei deialdi berezia egin nahi die. Prestaketa moduko entrenamenduak antolatuko dituzte, maiatzaren 6an hasita. Entrenamendiak ostiraletan izango dira, 18:30ean hasita. Interesa duenak elkartearekin harremanetan jar daiteke agono@telefonica.net e-postara idatziz.

EMAITZAK

AURREKO ASTEBURUA

Ganbara juniorrak-Oiarso	54-65
Ganbara kadeteak-Askatuak	56-30
Oiarso- Txitibar kadeteak	39-32

SAILKAPENA

1	Goierrri	14 puntu
2	Ganbara Kadeteak	12 puntu
3	Eibar	12 puntu
4	Easo	12 puntu

PARTIDAK ANDOAINEN

Ganbara-Juniorrak-Eibar	Ig, 11:00
Txitibar kadeteak-Luberri	Ig, 09:30



BURUNTZALDEA IKT

Majori igerileku ezagunean

IGERIKETA Buruntzaldea IKT taldeko alebin mailakoak ligako seigarren jardunaldia bizi izan zuten Ordiziako Majori kiroldegian. Alebin kategorian, eskualdeko klubeko hamahiru haur lehiatu ziren. Tartean Asier Barcena, Ane Meyer eta Oihan Matute andoaindarrak.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Izan gabe, izan

Altunak eta Martijak irabazi zuten binakakoa, dena kontra zeukatenean; ezinean iraun zuten, eta aurkariaren opariak probestu

Ez daukat erantzunik. Eta norbaitek badauka, esan dezala. Nolatan irabazi zuten txapela igandean Altunak eta Martijak, 17-11 galtzen zihoazela? Galderari buelta emanda. Nolatan galdu zuten jantzita zeukaten txapela Lasok eta Imazek? Nik ez dakit. Protagonistek eurek ba ote dakiten ere ez dakit. Markagailuaren indarraz gain sentsazioa ere oso oso argia zelako. Laso eta Imaz nahieran ari ziren, egurrean, Martijari sekulako zigorra eragiten, eta Altuna guztiz desaktibatuta. Txindokiko paretetan gora amorratuta nola, hala zebilen amezketarra pilotarik usaindu ezinik, edo usaintzen zituenetan asmatu ezinik.

Baina, zerbait pasa zen. Eta panorama aldatu zen. Zer? Ez daukat erantzunik. Erantzun zehatzik behintzat. Pilota aldaketa izango zen, akaso. Hartu zuten pasara fisikoa bere gordinean jasaten hasi zirela Imaz eta Laso. Datu bat, argitasun printza bat sumatzeko. Txapeldunen azken 12 tantoetatik sei aurkariaren opariak izan ziren. Galdutako pilota garbiak, denak. Eta galdera da: dena hain ondo, hain dotore egin bazuten ordura arte, zergatik gero hain trakets? Nekea, ziurrenik. Kolperik errazena munduko zailena bilakatzen denean, pilotak adreilu astun itxura hartzen duenean, final handietako tentsioa, erantzukizuna, urduritasuna, tenplea... Dena!

11-17kotik 21-17kora aldatu zen markagailua. Une erabakigarrian kale egin ez zutenak Altuna eta Martija. Batez ere Martija. Sakanako haizea izango da, edo Txurregi eta Erga mendien inspirazioa, baino Etxebarriko mutilak jokatzen duena astakeria da: eutsi, eman, aurrelaria



EITB

babestu, lurrera bota, sufritu... Superman-en moztarria jantzi zuen finalean nafarrak, lauren artean onena, eta askogatik.

Martija izan zen balantza desorekatu zuena, eutsi izan ez balio finala askoz lehenago bukatua egongo litzatekeelako. 102 minutura joan zen, ordea, eta luzapen horretan, boltereta horretan, Jokin Altuna agertu zen. Kamuts, lehen erdian. Bukatu ezinik, Lasoren mendean, atzelari laguna lagundu ezinik, inguratuta sentitzen den basurde amorratuaren pare. Baina Pirinioetako mutilak jositako zepotik ihes egin zuen Altunak, eta finala irabazi. Bukatu ezin izan zituen tantoak bukatuta, Laso behartuz, Imaz-en kemena kolpatuz. Izan gabe izan zen Jokin. Egon gabe agertu zen.

Pazientzia jokatu eta agertu behar zenean agertu. Erabaki. Pilotari handiek, plaza gizonek, kasta dutenek egin ohi duten bezala. Sena. Determinazioa. Fedea. Eta txapela. Eta koroa hirukoitza. 26 urterekin. Historiako zortzigarrena.

Apunte pare bat, bukatzeko. Pilota garaile, finalaren ostean. Ikuskizun handia izan zen, baina kirolariak zaindu egin behar dira. Altunak izan ezik, beste hirurek jota bukatu zuten. Eta denak atletak dira!

Trofeo banaketa: Pilota ez da NBA, edo boxeo konbate bat. Su artifizial efektuak eta antzekoak soberan daude. Pilotak ez du halako parafernaliarik behar! Sal dezagun geurea dena modu naturalagoan!



andoaINDARRA
euskaraz

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 7

ANDOAIN Korrika

Peto potea. Petoa banatuko zaie parte hartzaileei. Plaza Morean hasiko da eta Zumea plazan amaitu. **18:00, Plaza Morea.**

ANDOAIN Tailerra

Jabekuntza Eskolarekin, gorputz kontzientziatik mugimendu askera tailerra. Dinamizatzailea: Maider Oartzabal. **18:00-20:00, Urigain.**

OSTIRALA 8

ESKUALDEA Korrika

Korrika bertatik igaroko da. **08:13, Urnieta. Lasartetik dator. 08:43, Andoain. Urnietatik dator. 10:00, Korrika txikia Urnietan. 10:30, Korrika Txikia Andoainen.**

ANDOAIN Erakusketa

"Punctum", Pedro Gaztañagaren margolanen bilduma. **Apirilak 8-30.**

ANDOAIN Dantza

"Idiotak", Bamboo dance konpainiaren eskutik. Eduardo Gleanoren lan oparoan oinarritutako ikuskizuna. **19:00, Bastero.**

LARUNBATA 9

ANDOAIN Korrika

"Frontona" ikuskizuna: Janire San Sebastian, Anne Maiza, Unai Ormaetxea, Josu Artutxa, Iñigo Otaegi eta Andoni Egaña. **12:00, Goikoplaza.**

ANDOAIN Kontzertua

Hesian taldetik datoz Zelanda taldekoak. Liher taldeak zuzeneko indartsua du. **19:00, Bastero.**

IGANDEA 10

URNIETA Antzerkia

"Kasilda, bukatzen ez den sua". Aktoreak: Leire Orbe, Aiora Sedano eta Ander Basaldua. **19:00, Sarobe.**



Apirilaren 9an atea zabalduko ditu. Aste Santuan zabalik izango da, egunero. **AIURRI**

ANDOAIN Leitzaran Bisitarien Etxea, zabalik

Bertakoentzat nahiz kanpoko bisitariarentzat Leitzara bailararen interpretazio gunea zabalik izango da. Zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzte, bertatik. Informazio osoa Leitzaran-andoain.eus webgunean. Era berean, errepidea itxita izango da Aste Santuko egunetan. **Apirilak 14-24, zabalik. Ordutegia: 10:30-18:30.**

ANDOAIN Mendi zeharkaldia

Andoain-Andoain mendi zeharkaldia. Hiru ibilbide aukeran. Izen-ematea: Zirkuitua.com. Ordutegi ezberdinak, aukeraturako ibilbidearen arabera. **07:00, 42 Km-koen irteera. 08:00, 21 Km-koen irteera. 09:00, 10 Km-koen irteera. Goikoplaza.**

bitarte jaiegun guztietan ere itxita egongo da. Bus zerbitzua ipiniko du Udalak. Informazio osoa: www.leitzaran-andoain.eus. **Leitzarango sarbidea.**

ANDOAIN Ingurumena

Bisitarien Etxea egunero zabalik. **Ordutegia: 10:30-18:30. Apirilak 14-24.**

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Trafikoa

Otieta eta Olatzarrera doan GI3091 errepidea Aste Santu honetan itxiko da. Eta urriaren 31ra

OSTEGUNA 21

URNIETA Antzerkia

Demode Quartet-en "Itsatsita" **ezohiko** musikala. **20:00, Sarobe.**




Aiurri astekaria ez da Aste Santuan argitaratuko.

Bitartean albisteak aiurri.eus webgunean. **ATSEDENALDI ON, IRAKURLE!**

www.aiurri.eus

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****La última película**

Ig., 10. 19:30.
Ast., 11. 19:30, 22:00.

Peter Rabbit 2:

A la fuga
Ig., 10. 17:00.

Turandot, opera

Astr, 12. 19:30.

Camea Cafe

Lar, 16. 19:30.
Ig, 17. 19:30.

Astl, 18. 19:30.

Astr, 19. 19:30.



SINOPSIS

**LA ULTIMA PELICULA (LAST FILM SHOW)**

Zuzendaria, gidoia: Pan Nalin. **Aktoreak:** Richa Meena, Rahul Koli, Dipen Raval, Bhavin Rabari, Vijay Mer... **Herrialdea:** India. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 111 minutu. **Urtea:** 2021.

Zinemari omenaldia, India aldetik

Samay 9 urteko mutikoa bere familiarekin bizi da, Indiako urrutiko herri batean. Zinema lehen aldiz ezagutuko du eta erabat hipnotizatuta geratuko da. Aitaren nahiaren aurka,

zinemara itzultzen da egunegun, eta proiektugilearen lagun egiten da. Haurrak emandako bazkariaren truke, filmak doan ikusten utziko dio zinema aretoko langileak.

**PETER RABBIT 2, A LA FUGA**

Zuzendaria, gidoia: Will Gluck. **Herrialdea:** AEB. **Generoa:** Marrakzi bizidunak. **Ekoizpna, banaketa:** Sony. **Iraupena:** 93 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Urtea:** 2021.

Peter Rabbiten bigarren filma

Peter hiriko kale ilunetan barneratuko da, non bere gaiztakeriak preziatuenak diren,

baina bere familia arriskuan dagoenean, zein untxi mota izan nahi duen erabaki beharko du.



Olazar parkea. UDALA

Olazar eta Otietara sartzeko errepidea itxita, Aste Santuan

Apirilaren 14tik 18ra itxi egingo dute Andoaingo Olagain auzotik Leitzararaino doan errepidea

Xabier Lasa ANDOAIN

Sarbidea soilik bizilagunei eta mugikortasun arazoak dituztenei baimenduko zaie. Oinez edo bizikletaz gerturatzeko apustua egin nahi dute, Leitzarana aldeko ingurua kutsadurarik babeste aldera.

Alternatiba modura, Olazar eta Otietara iristeko Hiribus zerbitzu berezia eskainiko dute Aste Santuko bost egunetan. Leitzararaino bitartean Etxearen denboraldi berriaren aurkezpena egin zuten iragarpena, trafikoa eragiten diona.

Otietara iristeko Hiribus zerbitzu berezia

Aste Santuko egunetan bus zerbitzu berezia eskainiko dute, Andoaingo herrigunea eta Otietara lotuz. Sei ibilbide egingo dituzte, joan-etorriko zerbitzuarekin.

• Orduetgia: 10:00, 11:00, 12:00, 17:00, 18:00, 19:00.

• Ibilbidea, joan-etorria: San Martin elizaren atzealdeko bus geltokia, Kale Nagusia (Bastero), Kaleberria (Nafarroa zubia), Zumea plaza, Aiztondo kalea, Olazar eta Otietara.

Errepidea asteburuetan eta jai egunetan itxita

Leitzararaino aldera kotxez gerturatzeko aukera mugatu egingo dute, aurrerantzean. Aurreko urteetan egin bezala, udaberria iristearrekin batera errepidea itxita egongo da asteburu eta jai egun guztietan. Neurria urriaren 30era bitarte luzatuko da.

URRIAREN 30ERA BITARTE, ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN ITXI EGINGO DUTE ERREPIDEA



Etxeberrietako parkean izango da ekitaldia, Goiztirian eskulturaren inguruan. AIURRI

Oroituzek antolatutako ekitaldia, larunbat honetan Alfaro parkean

Eguerdiko 12:00tan hasita, frankismoak eragindako biktimak gogoan hartuko dituzte Etxeberrietan

Xabier Lasa ANDOAIN

Frankismoak Andoainaren zapal dutako herritarrak gogoan hartuko dituzte, eta eraildako eta desagerrarazitako 25 herritarri lore eskaintza egingo zaie. Mai-zorri txalaparta eskolako kideak, Urki dantza taldeko kideak eta Punttuka bertso eskolakoak ekitaldian parte hartukoak dira.

Bestalde, urtero, herri elkarte bat gonbidatzen dute ekitaldira. *Usurbil 1936* taldeko kideak hurbilduko dira aurtengoan. Sortu berria da taldea, eta usurbildarren testigantzak jaso eta informazioa bildu ondoren, material horrekin guztiarekin liburua, erakusketa, dokumentala eta webgunea plazaratzeko asmoa daukate.


Banda Errepublikanoak eman go dio amaiera ekitaldiari. Andoaingo musikariz eta abeslariz osatuta dago, eta okasiorako emanaldi berezia eskaintzen

dute. Internazionala, Eusko Gudarriak, Grandola Vila Morena, Bella Ciao... Kantutegi antifaxista eta abertzalea eskainiko dute, Joxe Mari Oizartabal andoaindarraren zuzendaritzapean.

Epaitegi Konstituzionalaren zain 2017an, Oroituz elkarteak, Andoaingo Udalarekin elkarlanean, frankismoak andoaindarren artean eragin zuen giza eskubideen bortxaketak (eraiketak, desagertaketak, atxilotaketak, torturak...) oinarri zituen txostena aurkeztu zuen Espainiako eta Argentinako epaitegien. Frankismoaren aurkako kereila gisa aurkeztu zen txostena, eta ikerketa abian jartzeko eskatzen zuten.

Geroztik, Tolosako eta Gipuzkoako epaitegiek ezezkoa eman diote eskaerari, eta une honetan Espainiako Epaitegi Konstituzionalaren erantzunaren zain daude.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Jon eta Xuhar Aranburu

Zorionak bikote! Apirilaren 14 eta 16ean zenbaki borobilerara iritsiko zarete, 10 urte! Bikain ospatu ezazue! Muxuak etxeko guztien partez.



ADUNA / ANDOAIN

Zorionak Axel eta Amana

Apirilaren 12an Axel eta Amana bikiek 9 urte beteko dituzte. Izan zaitezte zoriontsu zuen urtebetetze egunean eta urte askoan horrelaxe jarraitu, jator eta zintzo zuen lagunekin eta etxekoekin. Muxuak, etxekoak.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Apirilak 11, astelehena.

16:30-20:30. Anbulatorioa, Andoain.

Urnietako Gaztelekuan ekimenez bete dute Aste Santua

12-16 urteko gaztetxoei zuzendutako eskaintza zabala da. Izena emateko epea ostiralean amaituko da

Erredakzioa URNIETA

Gaztelekuak askotariko ekintzak antolatu ditu apirilaren 11tik 22ra bitarte. Horrela, Urnietako gazteek udaberriko oporretan ondo pasatzeko aukera izango dute.

Jarduera ugari iragarri dituzte, datozen egunetarako: Pump Truck saioa, Aquariumera irteera, egunpasa Donostiara, sukaldaritza tailerra, Costa Jumpera irteera, arratsalde pasa Errenteriara....

Izena emateko Gaztelekura bertaratu behar da. Ostegunean arreta zerbitzua eskainiko dute 17:00-20:00 artean, eta ostiralean gaueko 21:00ak arte.

Gurasoei zuzendutako bilera, ostegun honetan

Gurasoak deitu dituzte bilera batera, ostegun honetan. 19:00tan hasiko da, Gaztelekuan. Ekintzen gaineko informazio zehatzagoa eskaintzea eta sor daitezkeen zalantzak argitzea dira bilera deitzearen arrazoiak.



Sukaldaritza tailerra Aste Santuko eskaintzan ageri da. NUTRIMSALUT

PROTAGONISTA

"Triste geratzen da oso gertuko tratua emango dizun denda txikirik gabeko auzoa"

ROXARITO ITURRALDE ZABALA ANDOAINGO DENDARIA

Iturza janari-dendak apirilaren 30ean itxiko du, betirako, erretiroa hartuko baitu Iturraldek. Amarekin batera hasitako ibilbidea amaitzeaz da, 45 urteren ostean

Xabier Lasa ANDOAIN

Bere ama Bittori Zabala hasi zen negozioarekin, 1977an.

Roxaritori pena handia ematen dio ikusteak Andoain nola ari den hiltzen, merkatariz husten.

Gero eta egun gutxiago geratzen zaizkizu ateak ixteko...

Bai, hilabetea ere ez, eta apalak husten ari zaizkit, generoa saldu ahala. Aurten, 65 urte betetzen ditut, eta nahiko lan egin dudala iruditzen zait.

Pentsatu al duzu denbora nola igaro orain arteko eguneroko martxa bukatu eta gero?

Ordulariaren menpe ez ibiltzea izango da lehenbiziko gauza!

Ba al dakizu zein alde dagoen bizitza honetan gauzak patxadaz edota ordulariaren presiopean egitearen artean? Senarra ere jubilatua dago, eta bioi oinez pasioan ibiltzea gustatzen zaigu. Eskulanez ere tiratzen didate eta izena emango dut ikastaroren batean. Bestalde, ahizparekin batera Urki taldeak antolatzen dituen dantza ikastaroetan aritzen naiz jausiak-eta ikasten eta barreak eginez tarteka. Eta hori uzteko asmorik ez daukat.

Zer esaten dizute bezeroek?

Pena hartzen dute, batez ere adinean aurrera dabiltzanak.

"Zer egin behar dugu, hemendik aurrera?" galdetzen didate, eta nik erantzuten diet lasai ibiltzeko, auzoan bertan fruta-saltzaile jator askoa badaukatela, Marijose (Anaiak Fruta-denda), eta harekin ondo moldatuko direla. Horietako batzuek telefonoz hots egitera ohituta dauzkat, enkarguak etxera eramaten dizkiet. Zer nahi izaten duten ondo dakit, eta kasik ez daukate hau eta beste aipatu beharrik ere.

Esker oneko hitzak izango dituzu bezero askorekin.

Bai, noski! Gogoz estimatzen diet, dendarekin eduki duten



Apirilaren 30ean itxiko dute denda, 45 urteko ibilbideari amaiera emanez. AIURRI

fideltasunagatik. Harreman polita sortu da urtetan zenbait bezerorekin. Eguneroko gauzak konfiantzan kontatu izan dizkiogu elkarri, eta, azkenean, psikologoaren kontsultaren antzekoa bilakatu da gure denda. Nik haien berri izan dut, baita haiek nirea ere!

Egin kontu, gure amak 1977an, denda ireki zuenetik,

hiru belaunaldi ezagutu ditugu. Garai horretan eraiki zen auzo haxe, lehenbizi Poligono 17 deitu ziotena. Espainiako barruko (Andaluzia, Extremadura, Galizia...) etorkin ugari heldu zen Andoainera; gazte ezkonberriak ziren eta asko auzo berrian jarri ziren bizitzen, eta familia eduki



Bittori Zabala Zalakain, Iturralderen ama, 2017-12-13an hil zen. Bere testigantza, Ahotsak.eus euskararen ahozko ondarearen webgunean ikus liteke. AHOTSAK

zuten. Orduan ume zirenak ezkondu eta horien umeak ere hazi dira. Hiru belaunaldi ezagutu ditugu, beraz. Oraindik ere badira bigarren belaunaldiko batzuk, dendara etorri, eta gogorarazten didatenak txiki-txikiak zirela nola etortzen ziren goxokiak erostera, eta duro batekin nola egiten zuten mostradorean kas-kas!

Amak ireki zuen denda.

Bai, amak –Bittori Zabala–, hasieran, gozoki denda ireki zuen. Senarra oso gazte hil zitzaion, eta, badakizu, egun, alargun pentsioak ez dira handiak, eta, orduan, gutxiago! Berak, 51 urte izanik, etxean ez zuela geratu nahi esaten zigun, eta, horrela, gozoki-denda irekitzera animatu zen. Ordurako, Antonio bere anai batek kale berean Galardi arraindegia martxan zuen. Izan ere, berez, zabalatarrak Galardi baserrian jaioak ziren, egun haurtzaindegia dagoen horretan. Baserriaren izena jarri zion anaiak arraindegia.

Bien bitartean, ni Laborde lantegian aritzen nintzen. Krisian sartu zen 70eko hamarkadaren azken aldera, eta itxi egin zuten azkenean. Amarekin dendan hasi nintzen orduan. 1984an, goxoki-denda janari-denda bihurtzea erabaki genuen, eta horri eutsi diogu geroztik.

Iturza janari-dendaren izenaren jatorriak ere badauka bere istoriotxo atzetik.

Abizen propioa dela uste du jende askok, baina ez da hala. Iturralde Zabala da gure familia, eta bi abizen horiek batzetik sortu genuen "Iturza". Kale honek izenik ez zeukala-eta, azken urtetan, Joxe Mari Iturzaeta pilotaria izendatzea erabaki du Udalak; kasualitate hutsa izan da, biren arteko antzekotasuna.

Baratzeko produktuekin nabarmendu da zure denda.

Bertako baratzeko produktuen salmentan bereiztu gara, bai; izan ere, azken batean,

bestelako elikagaiak antzekoak dira janari-denda batetik bestera. Buruntza auzoko gure etxeko baratzean senarrak letxuga landu du, batik bat, eta gainerako barazkiak, sasoiak sasoiak, Martutene, Ergobia, Altza eta Lasartetik ekarri izan ditugu. Orain jarri da modan 0Kilometroaren marka, baina guk hasieratik praktikatu izan dugu, beste denda txiki ugariren antzera. Bezeroek estimatzen dute jakitea erosten ari diren horrek bertan duela jatorria. **Denda txikiek ez daukaze erraza, are gutxiago janari-dendek.**

Gaizki eduki dugu beti herriko merkatariek, izan zergak, izan fakturak, izan saldu gabeko edo konstatutako generoa... Dena izaten da buruhaustea autonomoentzat, eta, azken aldian, are gehiago; zer esanik ez janari-denda txikiontzat! Ixtera kondenatuta daudela ematen du. Tristeza geratzen da oso gertuko tratua emango dizun denda txikirik gabeko auzoa; horrelaxe bukatu du Andoainek denbora askorik gabe, huts-hutsik, hila, eta orduan hartuko dugu pena galanta!

Grazia ematen dit Udalak nola zabaldu duen kanpaina, "Han edo hemen" kontsumitzeko gomendatuz. Nahi adina hipermerkatu handi irekitzeko baimenak eman ondoren hasten dira horrela... Gainera, gurea dena da argia, nondik ekartzen ditugun jakiak, non ordaintzen ditugun zergak, nora doazen irabaziak, non kontsumitzen dugun geuk merkatariek... Merkatalgune handi horien kontua, ordea, ba al daki inork garbi?

Lokalekin zer egiteko asmoa daukazu?

Salgai edo errentan jarriko dut; nahi nuke baten bat animatuko balitz, dendarekin jarraitzea, baina zaila dago kontua. Irtenbide errazago ikusten dut bestelako zerbitzuren bat eskainiko duen komertzio batentzat; auzoan, esate baterako, tatuajeen eta masajeen zerbitzuak ireki dituzte azken aldian.